

W u !



Andatza Eguna,
maiatzaren lehenean



Gaztañaga



Ibarrolaundi



Artzabal

Baserri eta monumentu

r t z z n
l r t k
l n r r z t n...

Ik rt sun k rt n r n m k n r r

M l z r k
s r z r k
H s k m z t k k
H r r r l u k
t r i u r r k
S l r k
s r r r k...

Ik rt sun
N k z l k r t k r t
U n t l n s t r l 1 2
T f n . / F x . 3 3 1 1 1
2 1 7 U S U I l l G u z
I k r t s u n o s u r l o m

SAGARDO EGUNA
2005

JAR EZAZU
ZURE PUBLIZITATEA
NOAUA!REN
SAGARDO EGUNEKO
ALE BEREZIAN

943 360 321 publizitatea@noaua.com

autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako **mintegiak**

Nola egin online finantza erakundeekiko eragiketak

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan.

Ordainketak, transferentziak, mugimenduak,... Edozein unetan eta banketxera joan beharrik gabe egin ditzakezu zure eragiketak Internet bidez, diru eta denbora gutxiago erabiliz.

Donostialdea
maiatzak 10
HERNANI
Hernani BHI (EPO)
Karmelo Labaka Eraikina

Ordutegia: **18:00-20:00**

Informatzeko eta izena emateko:
902 252 595
www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com

Sustatzaileak:

Artitlatzailea:

Txirrikitutik !

A txegalden bizi izan garenok ederki gogoratzen gara herriko erdigunera joateko erabiltzen genuen bide honetaz. Bide estua zen, bi kotxe larri-larri kabitzen ziren elkar gurutzatzen zirenean eta oinezkoentzako ez zegoen espaloirik ez eta zebra pasorik ere. Gauetan berriz, ilunpea nagusitzen zen, bide guztian zehar ez baitzegoen farola bakar bat ere. Zer nolako lasterketak egingo ote zituzten batek baino gehiagok etxeko atariraino goizeko ordu txikitik hilerritik hegaka hontz zuria pasatzen zenean. Argazkiko bidea auzolanean garbitu eta eraberritu zuten ordura arte asfaltaturik gabe zegoelako. Gaur egun ordea, bide honek bestelako itxura dauka; zabalagoa da, espaloiak eta zebra pasoak eginak daude eta argi faltarik ez dago. Urte guzti hauetan zehar, bidearen egoera hobetze aldera makina bat aldaketa egin dira; itxura guztien arabera oraingo honetan bertan egin beharreko lanak amaitu dira. Bidean zehar eserleku berriak jarri dituztenez, lasterka etxeratzen ziren haiek, orain, hilerri zaharraren parean dagoen eserlekuan eseri eta hontz zuria noiz pasako den zain lasai geratu daitezke.

Zalao Arnaiz Iburguren



Egilea: Luis Arnaiz, 1978-79, Atxegalde

Jabea: Luis Arnaiz

N u !

Argitaratzailea: NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com
www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Publizitatea: Maider Alustiza, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbietta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfonso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maialen Saez, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza.

NOAUA! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

NOAUA! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

AZALA

“Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak” liburutik hartutako irudiak.

Aurkibidea

ZUTABEAN, AINHOA AZPIROZ _____ 4. ORR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN _____ 6. ORR.

JEXUX ARTZEREN OMENEZ _____ 10. ORR.

Hirugarrenez, kulturaldi polita osatu du Jexux Artze Taldeak. Aurten, Arditurri eta Hiru Truku taldeekin osatu da egitaraua.



AURREKONTUAK, FUMATA ZURIAREN ZAIN _____ 12. ORR.

HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK _____ 13. ORR.

ANDATZA EGUNA, MAIATZAK 1 _____ 17. ORR.

ERRENTA AITORPENA, EUSKARAZ _____ 22. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Zutabea !



AINHOA AZPIROZ

Tabernak ere kerik gabeko guneak

2006ko urtarrilaren 1etik aurrera tabakoa erretzea debekatuta egongo da lantokietan, osasun etxeetan, eskoletan, kirol instalazio itxietan, jendea artatzeko guneetan, merkataritza guneetan, kultur etxeetan, liburutegietan eta museoetan. Tabernetan, 100 metro karratu baino gehiago dituztenetan, erretzaileentzat gune jakin bat jarri beharko da. Eta 100 metro karratu baino gutxiagokoetan ohar bat jarri beharko da kanpoan, tabernan erre daitekeen edo ez zehazteko. Tabakismoaren prebentziorako legeak ekarriko du hori dena.

Denboraren makinan sartu eta... jar dezagun imajinarioa martxan. Adibidez, pentsa dezagun 2008. urtean gaudela eta lagun talde bat Aginagako sagardotegira doala bazkaltzera. Han, jangelaren eskuinaldean erretzea posible da eta ezkerraldean ez. Noski, koadrilan erretzen dutenak eta ez dutenak daude. Non eseri? Eskuinaldean ala ezkerraldean? A ze buruhaustea!

Sagardotegitik atera eta kaxkora doaz trago batzuk hartzera. Kaxkoko bi tabernetan erre daitekeela dioen oharra dago eta beste hirutan ezin dela. Zer ohitura edukiko ote du koadrila horrek?

a) 2006ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko ohiturarekin jarraitzen dute: taberna gutzietatik pasatzen dira

txandan-txandan. Erre ezin denetan erre gabe egoten dira erretzaileak, eta erre daitekeenetan ke artean erretzaile ez direnak.

b) Erre daitekeen tabernetara bakarrik joaten dira.

c) Erre ezin daitekeen tabernetara bakarrik joaten dira, erretzaile pasiboen mesedetan.

d) Kanpoan gelditzen dira.

e) ...

Aukera bat baino gehiago dago. Ez da erraza izango denen gustua egitea eta eztabaida bat baino gehiago sortuko da: "eskubide osoa daukat erretzeko", "zure kea ez daukat nik zertan jasan beharrik", "bazen garaia erretzaile pasiboengan pentsatzeko", "ez diot kasurik egingo legeari"...

Halere, oraindik zaila egiten zaigu tabernetan erretzea debekatuta egongo dela irudikatzea. Ia-ia ezinezkoa. Baina, alderantziz ere gertatzen da. Gaur egun inori ez zaio bururatzen autobusetan erretzea (beno, salbuespen harroko batzuk egon badaude), eta orain dela urte gutxi arte gauzarik normalena zen.

Lantokietan erretzea ere debekatu egingo omen dute. Orduan, erre daitekeen tabernako kamareroak zer egingo du lanean ari bada?

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA,

NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen **IKA MIKA** atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: Maiatzak 13. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** Maiatzak 6.

txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA 13
943 360 400

piatxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

Larazaintza
sartak

URTINEA
urtinea@euskalnet.net

Lareak
karaak
Landareak

San Esteban
943 362 255
943 366 054 fax



Luis Aranalde, Aginagako apaiza

“Fumata” Zuria

Joseph Ratzinger kardinala aukeratu dute Eliza katolikoko buru izateko eta ohi den bezala, izen berria hartu du Aita Santuak: Benedikto XVI.a. Bedeinkatua esan nahi du izen horrek; dirudienez, Benedikto XV.aren ildotik joan nahi du ibilbide berrian.

Era guztietako iritziak irakurri ditut hautaketa honen gainean: batzuentzat, burdinazko kardinala (edo altzairuzkoa?) izan dela, fedearen zaintzaile nagusi, inkisidore zorrotza, Eliza kontserbadore baten ikonoa, teologo disidenteen zigortzailea (milatik gora dira errieta galantak jasoak, debekuak...). Besteentzat, aldiz, Eliza osoarentzat poztasun handiko unea ekarriko du, Jainkoari eskertzeko oparia da, jakinduria eta ezagutza handiko gizona da, daukan esperientzia ekarpen handia izango da, eta abar.

“Erronka handiak dauzka Aita Santu berri honek; izan ere, Eliza ofizialak eta Vatikanokoak, batez ere, atzera egin du gizarteak aurrera egin duen bitartean”

Zein dugu, bada, Benedikto XVI hau? Hona hemen bere biografiaren datu nagusienak: 1927an jaio zen Bavariako herrixka batean (Alemania); 1945ean apaiz izendatu zuten eta teologian lizentziatu zen. Tubingen eta beste unibertsitate batzuetan eskola eman zuten; Kontzilio Vatikanoko II.aren parte hartu

zuen; teologo bikain, ausart eta aitzindari bezala agertu zen orduan. Zer gertatu ote zitzaion Ratzinger-i Kontzilioan hain aurrerakoia izan eta azken urteotan agertu den bezain kontserbadorea bihurtzeko? Ikaratu, agian, Kontzilioak urratu nahi izan zituen bide berriekin? Inork ez daki. Monakoko artzapezpiku izendatu zuten Pablo VI.ak.

Erronka handiak dauzka Aita Santu berri honek; izan ere, Eliza ofizialak eta Vatikanokoak, batez ere, atzera egin du gizarteak aurrera egin duen bitartean; esparru hauetan dauzka nagusienak:

MORALA: Gizarte gaietan oso kontserbadorea da, beldurtia. Hots:emakumeen rola, homosexualitatea, antisorgailuak, HIESaren inguruko arazoak, ezkontza aurreko harremanak, dibortzioa.. Vatikanokoak zorrotzegi jokatu du gai hauetan, jokoz kanpo ikusten dut. Eta tristeena da ebanjelioaren izenean ematen dituela bere iritziak, Jesusen izenean dogmatizatzen duela.

DEMOKRAZIA: Zer dela eta dira batzuk egiaren jabe? Ez al goaz, bada, denok egiaren bila? Egiaren monopolioa dutela uste dute Vatikanon eta horrek dakar teologo disidentek zigortzea (Hans Küng, Leonardo Boff, Juan José Tamayo...) Baina, ezin al da iritzi ezberdinik eman? Ezin al da teologia gaurkotzen saiatu? Ezin al da bide berririk urratu? Elizan denok izan behar genuke berdinak duintasunean, nahiz eta zerbitzu ezberdinetan jardun. Elizak ez du izan behar piramidala, kolejiala eta demokratikoa, baizik. Denok berdi-



FUMATA ZURIAREKIN BAT EGIN ZUTEN USURBILGO ELIZAREN KANPAI HOTSAK.

nak, gizonezko, nahiz emakumezko, eskubide guztiekin eta zerbitzu guztietan parte hartzeko gai.

POBREZIAREN TESTIGANTZA: Egunotan ikusi ditugun irudiak ez dute zerikusirik Nazaretoko Jesusen predikarekin eta ikasbidearekin. Zerbaitean antzik badute, txiripaz izango da. Juan Pablo II.aren hileta inguruko “parafernalia” eta Aita Santu berriaren hautaketa zeremoni Erdi Aroko horiek eskandalutzat jo ditu jende askok.

Jesus ez zen boteretsuen lagun kuttun izan, behartsu ororena, baizik. Botere politikoak eta erlijiosoak bidali zuten gurutzera hain zuzen. Vatikanotik irudi soilagoak eta apalagoak ez datozkigun bitartean, jai dauka Eliza ofizialak. Julen Lekuonaren hitzekin gelditzen naiz: “Eliza pobrea, denontzat hobea”.

Bukatzeko. Jainkoak zuzen idazten omen du lerro okerrekin. Oraingoan izango du lanik. Baina, beti izan naiz optimista eta orain ere, bai. Badut konfiantzarik Benedikto XVI.aren. Ez al digu kale egingo.



Usurbil Autoak, S. C. L.

Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitzezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

**mila esker
guregan jarri duzuen
konfidantzagatik!**

aralar

IÑAKI
LABAKA

Txokoalde

Mendi ibilaldi neurtua

Pasa den igandean, apirilaren 24an, Andatza KKE-k antolatutako Ondarreta-Usurbil mendi ibilaldi neurtua burutu zen. Goizeko zazpitan hasi eta sei orduan paseotxoak bukatzea espero zuten. Mendizaleak gure auzotik pasa zirenean ordu dexente zeramatzaten oinez, handik aurrera ez zitzairen sufritzeko asko gelditzen. Andatza aldetik zetozen, Guardetxe eta Illunbe baserri aurretik pasa ondoren. Gero Irabi barreneko bidea hartuko zuten, azkenik Usurbila iristeko. Bakan batzuk hamabitako pasa baziren ere, ziztu bizian, gehiengoa ordubatak inguruan pasa ziren gure aurrean lasai-lasai multzo txikitari hitz egiten. Azkenerako ordubeteko tartean mendizale ugari pasa zen, herrikoak asko eta baita kanpotarrak ere, lagun asko animatu nonbait. Neke aurpegi handirik gabe zihoazen gehienak, hala ere, baten batek nahiko lanak bazituen lagunari jarraitzen. Eskerrak handik bukaeraino dena ordeka zen. Esan behar eguraldiarekin nahiko zorte ona izan zutela parte-hartzaileak, ezin hobea egin baitzuen, tenperatura oso egokia eta ateri.. Hala ere mendizaleak ibilbidean lokatza bilatu zuten, jantzian arrastoak nabarmenak ziren. Ordubiak aldera aldiz, behin ibilaldia bukatzeaz, euria hasi zuen eta arratsaldean txigorra ere izan genuen. Alde ederra dago buelta

busti gabe egin edo euripean egin. Ea hurrengo igandean, Andatza egunean ere, eguraldia portatzen den. Atzoko partaidetza ikusirik ziur nago mendizale ugari igoko dela Andatzara giro jatorra sortuaz.

Eguraldi onaren zain daudenak baserritarrak dira. Aspaldian nahigabetuta dabilta zelaian lasai lanean aritu ezinik. Aurten ere, eguraldi txarra medio, noiz hobetuko zain daude, piperrak ereiteko. Ohi bezala, Irabiko lur sail mordo batean landatuko dute eguraldia ez bada asko okertzen. Urtea dihoan bezala zeinek jakin ze joera hartuko duen aurrerantzean. Dena den, udaran nahiko piperra jateko aukera izango dugu aurten ere.

Bukatzeko, Imanol nere auzokidea behin baino gehiagotan kexatu da tartetxo honetan, Zumeta aurreko zuloaren egoeraz. Oraingo honetan niri tokatzen zait. Toki horretan zuloak egin zituzten aspaldian, Guardetxeraino ur bidea egin eta hodiak pasa ahal izateko. Geroztik Udalak zuloa tapatu izan du, baina denborarekin berriro agerian geratzen da galipotakin tapatzen ez delako. Oraintxe bertan, egin duen euriagaitik agian, egunero "batxe" ederra saihestu beharrean aurkitzen gara. Egun batean tapatuko dute behar den bezala.

IÑAKI
AGIRRESAROBE

Kaleberri

Eskolarteko Bertso Txapelketa

Aurten Gipuzkoako Bertso Txapelketak 25 urte beteko ditu. Sinbolikoa da zenbakia, baina urte horietako ibilbidean, hainbat haurrentzat bere lehen bertso topalekua izan da: Jon Sarasua, Euskitze, Maddalen Lujanbio, Felix Iñurrategi... eta beste zerrenda luze batek ere txapelketa hau izan du abiapuntu. Egitasmo honen sendotzea zale guztion esku dagoenez, etengabe berritzen, hausnartzen eta bidezidor berriak irekitzen ibili beharra dago.

Bertsolari gaztetxoek ispilua maiatzean hasi eta ekainaren 2an amaituko den txapelketa



pelketa hau izango da. Beraz, hastekar dagoen lehia honek hilaren 6an Usurbilgo Udarregi Ikastolan izango du hitzordua arratsaldeko 15:00etan. Lau kanporaketatik lehenena izango da. Hurrenez-hurren, Azpeitiako Ikasberri ikastolan, Arrasateko Arizmendi Ikastolan, Ordiziako Jakintza Ikastolan eta finala Donostiako Kursaleko

Ganbara aretoan izango da.

Azkenik, mende laurden honetako protagonistekin liburu mardun bat plazaratuko da, Jon Martin bertsolariaren lanari esker.

Eguraldia eguraldi


Kaixo irakurleok. Hementxe gaude kronikatxo hau idatzi nahian, euria erruz botatzen ari duelarik. Lehiotik begira egoteko aproposa, Andatza gaina argitzen dute tximistak begien gozamenerako eta belarriek, aldiz, zenbatu egiten dute zenbat denbora eta nolako burruna ateratzen duten trumoiak.

Azken aldi honetan denetarik izan dugu. Negu gogorra izan dugu, nahiz eta nahiko lehorra joan zaigun, bazterrak zuritu zituen denen gustorako eta ezin gehiago eskatu. Udaberri sarreran makutzitan ibiltzeko moduan izan ginen, jendea hondartzan, erropa arinekin... Baina atzera berriro, eguraldi umelak eta ilunak izan ditugu azken aldiko hauek, eguzkia ikusten ez dugula edo bestela Erromako zubia ederki azaltzen dela.

Eguraldi ederrarekin batera oinezkoak hasiko dira ugaritzen Troian behera eta Usaskutik

gora.

Bestalde eta bukatzeko eguraldia eguraldi maiatzaren 22rako elkartzean leku askorik ez da gelditzen, mugi zaitzete.



Kalezar



JOSEBA
PELLEJERO

Kontuz ibili behar zenbait lekuetan...

Agur bero bat irakurle guztioi! Hementxe Anatorkizue oraingoan ere gure auzoaren berri ematera. Azken aldiz idatzi nuenetik San Inazioko errotonda bukatuta dago eta beste itxura bat hartu du dagoeneko. Hasierako zalantzak eta kexak badi-rudi denborarekin apaltzen doazela. Autobus geltokiarekin ere arazo asko egongo zirela uste zen baina daukagunarekin konformatu behar.

Aurtengoan udaberria lotsaturik datorrela ematen du kosta egiten baitzaio argi eta garbi bere presentzia nabarmentzea. Neguko hotzak badoaz pixkanaka baina orain euriari tokatzen zaio. Atxegaldeko leku batzuetan kontu handiz ibili beharrean gaude oraindik zeren badira eguzkitik izkutuan geratzen diren leku ilun eta hezeak. Honen adibide Mahaspildegira jaisteko ditugun eskailerak dira. Normalean oso irristakor egoten dira goroldio eta bestelakoz beteak.

Bestalde aipatzekoa da gero eta gehiago direla balkoia ixten duten bizilagunak. Hasieran gutxi batzuen aukera izan bazen ere, denborarekin asko izan dira erabaki hau hartu duten etxeak.



Atxegalde



AINARA
ARNAIZ



Santuenea

ZALOA
LEOZ

Santuenea Santuen Leku ote?

Betidanik izan dut kuriosidadea gure auzoaren izena, Santuenea nondikakoa ote den. Akaso santuak elkartzen ziren auzogunea izango ote zen? Edo Konklabea egin ote zen ba pasa den mendeetako batean?

Kuriosidadeari erantzuna bilatu nahian, etxe gehienetan bueltaka dabilkigun "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak" liburua hartu nuen eskuetan. Ezer baino lehen, aurkibidean begiratu eta Santuenea izena agertzen da. Santuenea, San Estebango malda hasten den tokian Santuenea edo Santuruenea izena zuen baserria omen zen eta hemendik omen datorkio izena auzoari.

Beraz, Usurbilgo auzo asko bezala, bertan zen baserriak eman dio izena gure auzoari (Eguzkitza, Artzabal...). Etxearen lehenengo erreferentzia 1642koa omen da. Bertan Loyolako Ignaziok ostatu hartu omen zuen Paristik Azpeitira zijoala.

Baserria 1960ko hamarkadan erre omen zen. Etxea hutsik zegoen eta ume batzuk jolasean zebiltzala eman omen zioten su. Hamarkada honetan egin zituzten baita gaur egunean ditugun auzo-etxeak eta bertara bizitzera joan omen ziren bertan bizi ziren 16-18 senideak.

Beraz, santuen toki baino infernu batean bukatu zuela esan daiteke. Lastima auzoari izena ematen dion baserria desagertuta izatea. Eta gainera argazkirik ere ez dagoela esatera ausartuko nintzateke (liburuan behintzat ez dut topatu). Akaso, auzotarren batek izango du baserriaren argazkia eta berreskura genezake.

Aspaldiko kontuak alde batetara utzita, datorren apirilaren 29an arratsaldeko 18:30tan ipuin kontaketa izango dugula ere esan nahi dizuet. Pello Añorgaren eskutik izango da Santuenea 12an dagoen lokalean.



Urdaiaga

NEREA
AIZPURUA

Gure esku dago

Agur bero bat guztiei San Esteban alde ahonetatik!

Gaurko honetan, inguruneaz eta birziklapenaz hitz egitea otu zait. Egia esan, birziklapenaren gaia, aurkitzen garen mendean garrantzi handia duen gaien artean aurkitzen dela argi dago, baina zenbatek ematen dugu aurrera?

Plastikoa, egurra, larrua, kartoia, papera, beira, jana, metalezko ontziak eta abar... era askotako zakarrak daude gure etxeetan. Baina hondakinak behar bezala aprobetxatzen edo desegiten ez badira, arazo larriak sor daitezke: osasuna arriskuan jarri, ura kutsatu, eta zerua zer esanik ez.

Hau kontuan izanik, abantaila handiak ditu zaborra etxean bertan banatzeak. Hau eginez gero, arazo guztiak konpondurik daude.



Etxean bereizketa egitea ez da garestiagoa, ezta zailagoa ere. Baina, horretara jendeak ohitu egin behar du. Jendearengan arazoaren konponketan parte hartzeko gogoia suspertu behar da eta ez da erraza!

Baina ze zentzu du inguruneaz kezak, ingurunearen ardura gure esku badago? Denok ahalegin bat egitea beharrezkoa da. Beraz, badakizue, .hasi lanean!

Konklabea Aginagan

Bat baino gehiago entzut dut egun hauetan eguraldiagatik gaizki esaka, egia esan, ez zaio arrazoirik falta, denok baikaude udako giroaren zain.

Ni, ordea, uda bukaerako beste plan batekin nator: San Praixkuak. Datorren maiatzaren 10ean (asteartea), gaueko 21:00etan lehenengo bilera egingo da festak antolatzeko Aginagako apaiz etxean. Bertan Konklabea egingo da Aginagako kardenal guztien artean eta "Fumata Zuria" ateratzen bada festak egingo dira eta "Fumata Beltza" ateratzen bada, ez dira egingo.

Beraz, Aginagako kardenal guztiok konboka-tuak zaudete datorren maiatzaren 10eko konklabea. Ea festak egiten ditugun denon artean eta festa gosea asetzen joaten garen.

Azkenik esan behar, pasa den asteburuan, Aginagako "guerrilla" Lasturko (Itziar) basoetan



entrenatzen ibili zela bertan egun pasa polita egingez. Lehenik *Paintballean* ibili ziren elkarri tiroka, gero xexenen aurrean korrika (batzuk xexen azpian ere bai) eta azkenik afari eder baten ondoren parranda polit bat eginaz, ohitura onak galdu gabe!

Aginaga



**OSKAR
SANTAMARIA**

Etxebizitzaren arazoa dela eta

Espainiako etxebizitza gaietarako ministroak esan berri du, 25 metro karratuko etxeak egiteko asmoa dutela, etxebizitzaren arazoa konpontzeko, hori bai, gazteentzako eta prezio egokietan. Beti jarri ohi da gaztearen aitzakia, gero beraiek nahi dutena egiteko. Martxa honetan, gero eta etxe txikiagoak egingez, ikusten dut denak rulotetan bizitzen...

Gero eta etxe gehiago egiten dira, toki guztietan, Usurbil, Donostia, edo Gipuzkoako herri edozeinetan. Donostiako Udalak, Zubietarako era badu plan bat, orain hogeitau egun iragarritakoa, non, milaka etxe egiteko asmoa du gure herrian. Donostiarren eta orohar, gipuzkoarren beharrak asetzeko balioko omen du. Nik ez dakit zenbateraino dira egia behar horiek eta zenbateraino ase behar diren konstruktoreen eta espekulatzailen beharrak, baino argi dagoena da, gero eta garestiagoak direla etxeak eta gero eta txikiagoak egiten dituztela, ahalik eta hobeto aprobetxazeko espazioa.

Estatistika ekonomikoetan azaltzen denez,



gero eta ahalegin handiagoak egin behar dute familiek bere soldatetatik, etxebizitzaren mailegu hipotekarioa pagatzeko, kasu askotan, soldata oso bat erabiltzen delarik horretarako. Datu kezagarria, egunen batean krisi larri batean murgiltzen bagara, ez dakit zer pasatuko den...

Hau da dugun panorama, baina ez politikoeek, ezta ekonomikalariek, ez dute argirik jartzen arazo ilun honetan.

Zubietara



**MIKEL
BENGOETXEA**

Arditurri eta Hiru Truku taldeen emanaldiak **Jexux Artzeren omenez**

Maiatzaren 6an hasiko da Jexux Artzeren omenezko kulturaldia. Antolaketa lanetan aritu den Jose Ramon Furundarenak eman dizkigu aurtengo egitarauaren xehetasun nagusiak.

NOAUA! Duela bi urte, Jexux Artzeren lana eta *Ez dok amairu*ko garaia gogora ekartzeko moduko hamabostaldia antolatu zenuten. Geroztik, herrian bada kultur talde sendo bat. Gustura ari zareten seinale.

JOSE RAMON FURUNDARENA. Zuk diotzun bezala, orain dela bi urte luze, taldea osatzen hasi zenean, lehenengo asmoa Jexux Artzeri omenaldia egitea zen bere heriotzaren lehen urtebetetzean. Taldean bildu ginen Jexux Artzeren ume denborako lagunak edo geroztikoak, senideren bat, txalapartariak eta beste zenbait. Pixkanaka ustegabeko indarra hartu zuen. Horrela joan ziren gorpuzten ekitaldi ezberdinak eta Usurbilgo Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzako Kultur Saila inplikatzeari lotu ginen.

Hamabostaldi hark arrakasta handia izan zuela ikusirik, taldeak aurrera egitea erabaki zuen eta urtero zerbait antolatzea hartu ginen helburu bezala. Oraingoz gustora gabiltza, ez hasieran ibili ginen guztiak baina oraingoz gogoz ari gara lanean.

N. Egitaratua osatzerakoan, zeintzuk izan dira irizpide nagusiak?

J. R. F. Jexux Artze Taldearen asmoen artean honakoak aipatu behar ditugu: Jexux Artze txalapartariaren memoria mantentzea, txalapartaren ezagutza eta erabilpena sustatzeko ekintzak bultzatzea, *Ez dok amairu* taldeak izan zituen asmoekin bat datozen ekintzak antolatzea eta, orokorrean, herriko kultur giroa aberaste-ko ekintzak sustatzea.

Arditurri taldearekin batera, Juan Mari Beltranek txalaparta beste tresna askorekin batera maisuki uztartu du, "Gogoaren bidezidorretatik" diskoan entzun daitekeen bezala. Doinu zahar zein berriak sormen eta bizitasun harrigarritz nahastu ditu lan honetan.

Gehiago kosta zaigu bigarren taldea erabakitzea. Kontuan hartuz udazkenean hartzen ditugula erabakiak, Durangoko azokarako argitaratzen diren lan berriei erreparatzen diegu eta horietatik aukera bat egiten dugu denon artean. Ikusi genuen Hiru Trukuk Nafarroako kantu zaharrek lan bat argitaratu zuela eta oso egokia iruditu zitzaigun Usurbilen zuzenean entzuteko.

N. *Ez dok amairu* erakusketak oihartzun handia izan zuen. Zertan da erakusketak? Beste nonbait erakutsia izan da?

J. R. F. *Ez dok amairu* erakusketako material guztia Udalaren esku utzi genuen hitzarmen bat sinatu ondoren. Udala,



DUELA BI URTE EGIN ZEN JEXUX ARTZEREN OMENEZKO LEHEN KULTURALDIA.

orain ari da erakusketarako zenbait material kopiatzen utzi zuten guztiakin idatzi bat sinatzen, erakusketa beste herrietara eraman ahal izan dadin. Baimena 2010. urte bukarerarte izango da eta ia denen baimena lortua du.

Hurrengo pausua izango da, erakusketa egiteko baldintzak jasoko dituen dokumentua prestatzea eta interesatuak dau den herriei eskeintzea. Oraingoz ez dakigu hori noizko prestatuko duen Udalak.

Kontutan harturik erakusketaren garrantzia, Jexux Artze Taldearen desioa da, herri askotan ikusia izan dadila.

Sarrerak non eskuratu?

Lizardin, Mahukan, Txirristran.
 Prezioak: Kontzertu bat, 10 euro.

Bi kontzertu, 17 euro.

Antolatzailea: Jexux Artze Taldea.

Babeslea: NOAUA! Kultur Elkarteak.



JUAN MARI BELTRAN-ARDITURRI

MAIATZAK 6, OSTIRALA

22:30 OIARDO KIROLDEGIAN



HIRU TRUKU

MAIATZAK 7, LARUNBATA

22:30 OIARDO KIROLDEGIAN

Sorosle ikastaroa antolatu du DYAk

Maiatzaren 4an hasiko da DYAk antolatu duen sorosle eta lehen sorospen ikastaroa. Eguneroko bizitzan baliogarri izan daitezkeen aholkuak emango direnez, ikastaro honetan edonork har dezake parte.

Ikastaroaren iraupena hiru astekoa izango da. Maiatzaren 4an hasi eta maiatzaren 24a bitarte iraungo du. Egutero, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara, astelehenetik ostiralera. Hori bai, ikastaroa Hernanin egingo da, La Inmaculada Ikastetxean (Sandiusterrri, 4 - Hernani).

Oinarrizko ezagupenak

Arestian esan dugun moduan, ikastaroan edonork har dezake parte. Ez da aurrez ezagupenik behar. Egutero-kotasunean aurki ditzakegun arrisku egoerei aurre egiten irakatsiko digute DYako adituek: bihotz eta birika susperketa, zauriak, hausdurak, erredu-rak... Ikastaroan izena ematen duenak oinarrizko ezagupenak jasoko ditu. Lezioak oso arruntak izango dira; ikasiko duguna, aldiz, guztiz lagungarria. Teorian eta praktikan baliogarri diren aholkuak jasoko ditugu, oso modu erosoan eta atseginean gainera.



IKASLE KOPURUA MUGATUA IZANGO DA.

Titulua eta gutzi

Ikastaro amaierako frogak gainditzen dituenak, DYA Gipuzkoak eskeintzen duen sorosle titulua eskuratuko du. Ez hori bakarrik. Ikastaro hau gainditzen duenak, EHUra 2 kreditu jasotzeko aukera izango du.

Matrikula 60 eurokoa da (ikastaroko txostena barne). Baina kontuan izan ikasle kopurua mugatua izango dela.

Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, hona hemen DYaren telefono zenbakia: 943 46 46 22.

Zumarte Musika Eskolak 20 urte

Badira jada 20 urte Usurbilgo Txistulari Taldeko zenbait partaideen ekimenez, Zumarte Musika Eskola martxan hasi zela. Denbora honetan, musika kultura suspertzen lan handia egin du Zumartek. Egindako lana gogora ekarri eta lortu diren emaitzak ospatu asmoz, bi ekitaldi antolatu-ko ditu Zumarte Musika Eskolak. Maiatzaren amaieran, saio ugariz osaturiko kultur aste modukoa egingo da. Eta hori gutxi balitz, Zumarteko ikasleak eta ikasle ohiak jaialdi erraldoi batean bilduko dira ekainaren 25ean. Ikasturteari amaiera emateko ekitaldi ikusgarri hori kiroldegian egingo da.

Apirilaren 29an, Pello Añorga ipuin kontalaria Santuenean

Pello Añorga ipuin kontalaria Santuenean izango da apirilaren 29an, arratsaldeko 18:30ean hasiko den saioan.

Santuenea Elkarteko ludotekak antolatu du, Udalaren laguntzarekin.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea - 943 365 548 - 609 888 021

MAHUKA
C/ALMENDRI KALEA, 3 - 943 961 100

Hemen aurkituko duzu
gizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

Kale Nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olaguerria - Gozotegia

LABE-GOXO

TXIRIBOGA
TABERNA

ntx k k t k
t l t r k n n t u k

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98

MIKEL IZAGIRRE
ELEKTRIZITATEA

943 365 095
609 068 111

GOIZ ARGI ETXEA 37 KALEZAR

Aurrekontuak ere, fumata zuriaren zain

Udal gobernua gutxiengoan ari da lanean. Honen ondorioz, alderdien arteko akordioak ezinbestekoak dira aurrera egiteko. Horregatik atzeratu dira hainbeste 2005eko udal aurrekontuak. Negoziazioak asko luzatu ondoren, EA eta EAJ-PNV adostasunera iritsi dira. Baina azken txanpan, udal teknikarien txostenak izan dira aurrekontu proiektua kolokan jarri dutenak.

Bitxia izan zen apirilaren 22an gertatu zena. Kanpotik ikusita, harritzekoa. Egun horretarako, ez-ohiko udalbatza plenoan parte hartzeko deialdia jaso zuten udalbatzako kide guztiek. Aztergaien artean, 2005eko aurrekontu proiektua. Agindutako orduan hantxe ziren alkatea eta zinegotziak. Baina ez zen plenorik egin.

Ezer baino lehen, esan dezagun aurrekontuak lehen-lehenik Ogasun Batzordean aztertzen direla. Baina batzorde

horretan hitzartutakoari udalbatza plenoak eman behar dio azken onespena. Bestela, ez dago aurrekontu berririk.

Udal teknikarien txostena, proposamenaren aurkakoa

Deialdia egin zegoen arren, zergatik ez zen apirilaren 22an plenorik egin? Kronologikoki azalduko dugu. Apirilaren 15ean, aurrekontu proposamen bat aurkeztu zen Ogasun Batzordean. Kirol Patronatuko Aurrekontua falta zen, eta udal teknikarien txostena aurkakoa zen. Bi arrazoi horiengatik mahai gainean geratu zen aurrekontu proposamena. Ez zela onartu, alegia. Apirilaren 19ko Ogasun Batzordean ere, hainbat agiri falta zirenez, onartu gabe jarraitu zuen aurrekontu proiektuak.

Hirugarrenean ere, kale

Hirugarrengoan onartuko zelakoan, apirilaren 22rako Ogasun Batzordea bil-



IAZ, AURREKONTUAK ONARTU ZIRENEKO ERRETRATUA.

tzeko deialdia egin zen. Batzordea bildu zen baina hirugarrenean ere, gauzak konpondu gabe geratu ziren. Ondoren egin beharreko plenoa ere, bertan behera utzi eta, ondorioz, aurrekontu proposamena mahai gainean geratu zen hirugarrenez, apirilaren 26ko udalbatza plenora arte. Udal aurrekontu berriak, beraz, fumata zuriaren zain.

Seinale berriak jarri beharko dira udaletxeko plazan

Apirilaren 22an, goiz partean gertatutakoak azter pentsatua eman beharko lioke baten bati. Ez-ohiko udalbatza plenoaren gai ordenean, kontu aipagarria mahai gainean: aurrekontu proposamena. Zinegotzi batzuk goiz iritsi ziren udaletxera. Behin zinegotziak udaletxe barruan zirela, bizkartzainen auto batek plazatik atera nahi eta,

konturatu gabe, eskaileran behera abiatu zen (1. irudia). Autoa, eskaileran ez aurrera ez atzera geratu zen. Azkenean, udaltzaingoak atera zuen autoa eskaileretatik (2. irudia).

Akaso, aldameneko seinalea jarriko beharko da plazan, berriz gerta ez dadin. Aurrekontuen lehen kreditu aldaketan jaso daiteke...



EAJ-PNV/ EA koalizioa nagusitu zen Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan

Apirilaren 17ko hauteskundeetan, EA eta EAJ-PNV alderdiek osaturiko koalizioa izan zen boto gehien jaso zuena. EHAK izan zen bigarrena. Duela lau urteko datuekin alderatuz, aipatzekoa da abstentzioak izan duen gorakada. 2001ean, 877 izan ziren botoa eman ez zuten herritarrak. 2005eko apirilaren 17an, aldiz, kopurua ia bikoiztu egin zen. 1.461 boto izan ziren abstentzioan geratu zirenak. Honakoan, erroldan boto-emale gehiago azaltzen baziren ere, alderdi gehienak behera egin dute. Usurbilen, Ezker Batua izan da igo den bakarra (EHAK eta Aralar, Eusko Legebiltzarrera aurkeztu ziren lehen aldia baitzen).

2005eko emaitzak		2001eko emaitzak	
EAJ-PNV/ EA	1.282	EAJ-PNV/ EA	1.642
EHAK	1.087	EH	1.109
PSE-EE PSOE	378	PSE-EE PSOE	382
ARALAR	206		
PP	180	PP	320
EB-IU	113	EB-IU	101
Errolda	4.663	Errolda	4.460
Hautesleak	3.202	Hautesleak	3.083
Abstentzioa	1.461	Abstentzioa	877

Biometanizazio eta konpostatze gunea Elor inguruan ipini nahi du Odon Elorzak

Urbilgo errepide sare ondoan dagoen Elor mendi-maldari begira dago Odon Elorza. Donostiako alkateak bertan ipini nahi du erraustegiaren ordezko izan beharko lukeen biometanizazio eta konpostatze gunea. 10 hektarea beharko lirake eta Odon Elorzak Donostia eta Usurbil artean eraiki nahiko luke. Proposamen honek Eusko Treni ere eragingo lioke. Baina Donostiako alkatearentzat hori ez da arazo. Biometanizazio eta konpostatze gune horren jarduera erraztuko luke, bereziki, garraio-lanak.

Aritzetako errauste-plantaren ordez, biometanizazio eta konpostatze gunea eraiki nahi du Odon Elorzak. Donostia eta Usurbil arteko lur sailetan, errepide sareko "bigarren zinturoiaren" inguruan (A-8 autobidearen aldamenean, alegia).

Hamar hektareako lur-saila

Elor mendi-maldaren aldamenean dagoen lur sail hori biometanizazio gunea eraikitzeke egokia dela uste du Donostiako udal gobernuak. Landa lurak dira eta lur sail osoak 40 hektarea hartzen ditu. Donostiako alkatearen esanetan, "hirigunetik aldentuta dago, ez dira nekazaritza lurak eta, gainera, ezin urbanizatuzkoak dira".



ERRAUSTE-PLANTAREN ALTERNATIBA LITZATEKE ODON ELORZAREN EGITASMOA.

Eusko Tren, aldamenean

Kokaleku hau «oso ondo komunikatuta» dagoela azpimarratu nahi izan du Odon Elorza alkateak. Inguruan ditu A-8 autobidea eta N-1 errepidea. Donostiako "bigarren zinturoia" ere, hortik pasako da. Kokaleku horren aldamenean, dena den, Eusko Treneko tren geltokia dago. Baina hori abantaila dela uste du Odon Elorzak. Edukiontzia garraiatzeko kontuan hartzeko elementua dela nabarmendu zuen, «garraioa asko erraztuko lukeelako».

Zonaldea, suspentsoan

Luismari Ormaetxea Usurbilgo alkateak adierazi digunez, Odon Elorzak aipa-

tzen duen zonaldea, Usurbil dagokion zatian behintzat, nekazaritza-lurra da. Luzuriaga-Fagorren parean dagoen gunea, ordea, (irudian ageri dena) industrialia da Arau Subsidiarioen arabera. Baina Foru Aldundiak zonalde hau suspentsoan utzi omen du: "Donostia, Usurbil eta Lasarte-Oria artean "konpatibilizazio plana" egiten ez den artean, hau da, Elor, Belartza eta Teresategi zonalde industrialen arteko oreka eta konpatibilizazioa bermatzen ez den bitartean", hala adierazi digu Luismari Ormaetxeak.

EHNA eskuratzeko aukera berri bat

Datorren apirilaren 30ean, larunbata, goizeko 11.00etatik 13.00era Euskal Herriko Naziotasun Aitormena (EHNA) tramitatzeko aukera berri bat izango da. UHLko ordezkariek udaletxe atarian izango dira tramitazioak erraztu asmoz.

EHNA eskuratu nahi duenak, honako hau aurkeztu beharko du: 3 argazki eta errolda agiria (adin txiki-koek famili-liburuaren fotokopia). Prezioa: 15 euro.

Monumentu izendapena jasoko dute Gaztañaga, Ibarrolaundi eta Artzabal baserriek

Artzabal, Gaztañaga eta Ibarrolaundi baserriak monumentu gisa izendatuak izango dira. Apirilaren 4an, hala erabaki zuen Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzak. Horri esker, hiru baserriak Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartuko dira. Espedienteak jendeurrean dira eta alegazioak egiteko epea zabalik dago oraindik. Baina okerrik ez bada, laster hiru baserri hauek monumentu izendapena jasoko dute. Hala, baserriek eta baserri inguruek babes berezia izango dute aurrerantzean.

Albistea jaso eta berehala Josu Tellabiderek jarri ginen harremanetan, norekin bestela? "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak" liburuan, hiru baserri hauen xehetasun ugari bildu ditu Tellabidek. Honakoan, ordea, monumentu izendapenak zer esan nahi duen azaltzea eskatu diogu.

Baserriek eta baserri inguruek babes berezia izango dute

Etxeak katalogotzen aritu ohi da Josu Tellabide. Udaletxeak, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza... asko dira Josurengana jotzen dutenak. Ikerlari honek azaldu digunez, "nik txostenak egiten ditut baina

instituzioetako teknikariak dira nire idatziak aztertu eta erabakiak proposatzen dituztenak". Honen haritik, Eusko Jaurlaritza izan da, Josuren txostenetan oinarrituz, Artzabal, Gaztañaga eta Ibarrolaundi baserriak monumentu izendatzeko prozedura abiarazi duena. Baina monumentu izendapenak zertarako balio du? Josu Tellabidek adierazi digunez, baserriek eta baserrien inguruek babes berezia izango dute aurrerantzean. Ez hori bakarrik, laguntza bereziak jasotzeko aukera izango dute. "Arrillagaundi ere monumentu da eta, horri esker, fatxada eta teilatua berritzeko laguntza jaso du", esan digu Josuk. Administrazioak, beraz, laguntzak ematen dizkie monumentu izaeradun baserriek. Zergak ere, jeitsi egingo zaizkie.

Artzabal, kaxko inguruko etxerik onenetakoa

Artzabal XVIII. mendeko etxea da, osorik iraun duen bakarrenetakoa. Tolarearen habeak eta ainguratzeak mantentzen ditu baina tolairearen solairua falta zaio. "Bakarrik hori falta du. Nire ametsa tolaire solairua jartzea litzateke", aitortu digu Josu Tellabidek.

Eskaratzeta, irekita eta eta bere pilare guztiak mantentzen dituen bakarrenetakoa da.

Horregatik, albistearekin pozik somatu dugu Josu. Bere ustez, baserri hauek babes horren premia zuten: "kaxko inguruan dauden onenak dira Artzabal, Gaztañaga, Bizkarre eta Kaparotz".

Herri bilerak egiten ziren Gaztañaga baserrian

Gaztañaga ere, Usurbilgo etxe garrantzitsuenetakoa da. Garai batean, herri bilerak Gaztañagako hariztian egiten baitziren. Tellabidek adierazi digunez, baserri honek hainbat berrikuntza jasan ditu. Habeak XVII-XVIII. mendekoak dira. XIX. mendean, ordea, berriztatua izan zen baina "berriztatua egin zitzaion", adierazi digu gure solaskideak.

Chillidak Ibarrolaundi erosi nahi izan zueneko

Ibarrolaundi, berriz, Gipuzkoan dagoen baserri onenetakoa dela esan digu Josuk. "Egitura onenetakoa du. Niretzat, artelana da Ibarrolaundi. Chillidak erosteko asmoa izan zuen. Baina, garai hartan (duela 30 urte, gutxienez) Usurbil inguruan aireportu bat egiteko asmoa zegoen. Hori dela eta, Zabalaga baserria erosi zuen". Gerora, Zabalagan zabaldu zen Chillida Leku.



Artzabal baserria

* **DESKRIBAPENA:** Elizaldeko hirigunean dago.

"Neurri ertaineko eta oinplano angeluzuzeneko eraikin barrokoa da. Bi solairu eta ganbara ditu, hiru isurkiko zurezko estalkia eta bizkarra, fatxada nagusiarekiko elkarzuta, Hego-ekialdera orientatua. Hareharrizko harlandu-eskantzuzak ditu. Fatxada horren beheko solairua harri-hormez egina dago, eta Hego-mendebaldean karrerape irekia du. Karrerape honen erdian, sekzio zilindrikoko harrizko zutabeak zurezko baoa lehen solairutik zurkaizten du. Erdian, harlanduz inguratutako bao dintelatua, eraikineko sarrera nagusia da.

Baserri honetako barne-armadura, pieza bakarrek bederratzitzi pilarek eusten dute. Pilare hauek habeak, gapirioak eta aho-ziriketan mihiztatutako besoak eusten dituzte. Lehen solairuko azaleraren laurdena, Ipar-mendebaldean, zementu-forjazkoa da. Zati honetan bertan eta zona berean ez du ganbararik".



Gaztañaga

* **DESKRIBAPENA:** Gaztañaga baserria hirigunean dago. "(...) Sarrera nagusitik, lurzoruan harrizko lauza handiak jarrita dituen atalondora heltzen gara. Atzealdean, gaur egun erabiltzen ez duten ukuilua dago. Bertan, erai-kina eusten duten eta lehen solairura heltzen diren bederatzita pilare handietako zenbaiten behealde ikus daiteke. Pilare hauek eta bertan mihizatzen diren habeak XVI. mendekoak dira. Lehen solairutik gorako egitura XVIII. mendekoa da, garai horretan eraikina Hegoaldeko (fatxada nagusia) eta Ekialdeko (ataripe itsutuak) sektoreekin handitu zelako. XVIII. mendeko egitura pieza bakarrek pilarez egina dago, eta ganbaran urkila luze eta finak agertzen dira, bai eta aho-ziriketan mihizatutako habe eta besoak ere. Lehen solairuan egongela nagusia dago, eta bertatik hainbat ganbara itsutara sar daiteke. Ganbaretako batean bainugela dago lurrian zink-xaflak dituela. Neurriengatik eta argi naturala sartu ahal izateko, korridorean estalkitik jaisten den argizuloa dago".



Ibarrolaundi

* **DESKRIBAPENA:** Ibarrolaundi Kalezar auzo inguruan dago. "Oinplano angeluzuzena du, bi isurkiko zurezko estalkia, eta fatxada nagusiarekiko bizkar elkarzuta, Hegoalderantz orientatua. Bi solairu eta ganbara ditu. Fatxada nagusia harri-horma zarpeatuz eta kareztatuz eraikita dago. Hegoaldeko fatxada nagusi honek bistako otaesiak ditu. Ekialdeko fatxadan, sarrera moduan zubi dintelatua, hare-harrizko harlanduz inguratua, eta ate horren antzeko ezau-garriak dituzten hiru leiho-bao aurkituko ditugu. Mendebaldeko fatxada motzagoa da lurzoru aldapan dago-elako. Bertatik zuzenean ganbarara sar gaitezke ate handi bat gurutzatuta. Alde honetan ere, dolare bezala erabilitako eranskin atxikia aurkituko dugu (...). Baserriaren egitura pieza bakarrek hamaika pilarek, habeek, gapirioek eta, enarabuztanekin eta aho-zirikekin mihizatutako besoek osatzen dute. Egiturak, dolare gotiko bateko lau pilare oso ditu. Zenbait habebururen muturrak zizelkatuak daude (...)"

* Hiru baserrien deskribapenak, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak eginiko txostenetan ageri dira.

PATRI JATETXEA
 plater konblatuak
 eguneroko menuak
 ogitartekoak
943 362 725

H n k n U z n n, s l z
USU ILG H TZ KLINIK
 EE N N E EZ-M SS NENNINGE
 NT NI E N L UIZ E
 K L N us , 2 L C 2 17
 Tf 337 7 USU IL

Zendoia

 Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71

ERRAZKIN IGELTSERITZA OROKORRA
 Kale Nagusia 1
 629 420565 - 649 435 470
 943 365 125

EUSKAL OKELA

 CARRER DE VILCINO DE CALDAS DE SAN VALE
LK T
UT ZE ITZU
 F IT K
 ZKI K
 OKTU K
ETXEK
 h k k l , 4
 T H 433 57 42
K NOEL TU K

I Its r tz

 Mugikorra: 649435475
 649435476
 943 363370- 361439

Maiatzaren 14tik aurrera, Plis, Plas, Txalo ta Jolas!

Udaberriarekin batera iritsi ohi da Plis, Plas, Txalo ta Jolas egitaraua. Hasteko, kirol pixka bat egiteko aukera izango da. Bide batez, herri kirolak ezagutzeko parada izango dugu. Arratsaldeko 17:30ean hasiko da herri kirol saio hori, non eta Santueneko eskubaloi zelaian. Ondorenean, Plis Plas egitarauari esker, Eriz Magoa, Korri, Xalto eta Brinko pailazoak eta Pirritx eta Porrotxen bisita jasoko dugu. Animo eta ondo pasa!



EKAINAREN 4AN IRITSIKO DA GURE ARTERA ERIZ MAGOA, KALEZARRERA HAIN ZUZEN.

MAIATZAK 14, LARUNBATA
Arratsaldeko 17:30ean, Santueneko eskubaloi gunean. RPE (herri kirolak).

MAIATZAK 28, LARUNBATA
Arratsaldeko 17:30ean, Zubietako plaza edo frontoian. Zenbat Gara taldearen "Hamaika Koloretan Dantza".

EKAINAK 4, LARUNBATA
Arratsaldeko 17:30ean, Kalezarren, Eriz Magoa.

EKAINAK 11, LARUNBATA
Arratsaldeko 17:30ean, Aginagako frontoian. Korri, Xalto eta Brinko.

EKAINAK 22, ASTEAZKENA
Arratsaldeko 18:00etan, Kaxkoan. Pirritx eta Porrotx pailazoak.

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! hamaboskaria, Euskal Txokoak, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak"... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Zure babesa funtsezkoa da kultur elkarte honen sustenguan.

Bazkide egin zaitez!

Noaua!!

36 euro urte osorako

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Telefonoa: _____
 E-posta: _____
 Kontu Korrontea: []

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

JOSETXO IKATZETA



Iturgintza

TELF: 943 36 20 26
687 95 12 25

al s p s t e r a



Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Txiki k
 F I A k k l r n
 1 s (k z k (I N 2 +))
 r x z r z u (s + u r z k)
 l n n k k (+)
 r + r k r k
 Enku + s i k (w r + k r l k l j u)
 Zur + z k u z l + n

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

IGELTSE ITZ
 t
 INTU

943 36 20 26
 687 95 12 25

Andatza Eguna hemen da

Aspaldiko ohiturari jarraituz, maiatzaren lehenean ospatuko da Andatza Eguna. Mendia Zizurkil eta Usurbilgo lurretan kokatua dagoenez, Andatza Eguneko antolaketa lanak ere bi herrien artean egin dira.

562 metroko altuera duen mendi kuttunera igo nahi dutenek egun osoa izango dute, baina festak goizean izango du hitzordu nagusia. Eguerdirako hamaiketakoa prest egongo da beheko txabolan. Bertan, salda, txorizoa, haragi egosia eta edaria doan banatuko dira.

Hamabietan, herri-kirol eta jokoak izango dira haurrentzat eta helduentzat. Goizean zehar trikitixa doinurik ez da faltako, eta bertsolariak ere izango dira.

Bazkaltzeko garaian, bazkaria norberak eramatea aurreikusi da, baina kafea eta kopa bertan banatuko dira.

Bazkalondoren ere, festa girorik ez da faltako.

Beraz, horra hitzordua, maiatzaren lehenean, denok Andatzara.

Ea, bada, jai giroan egun egokia pasatzeko aukera dugun!



IAZKOAN, HERRI KIROLETAN ARITZEKO AUKERA IZAN ZEN.

Andatza Eguna 2005

11:00etan, hamaiketakoa. Salda, txorizoa, haragi egosia eta edaria.

12:00etan, herri kirol eta jokoak haurrentzat eta helduentzat.

14:00etan, bazkaria (norberak berea eramanda). Kafea eta kopa banatuko dira.

Goizean zehar, erromeria, trikitilari eta bertsolariekin.

Antolatzaileak: Andatza Mendizale Elkartea, Ziortza Kirol Elkartea, Zizurkilgo Goiko Zentroa, Zizurkilgo Udala, Usurbilgo Udala.

Santixabel Pilota Txapelketa, final zortzirenetan

Pasa den asteburuan amaitu ziren Usurbilgo XXXIII Pilota Txapelketaren azken hamaseigarrenak. Maiatzaren 1eko asteburuan hasiko dira, beraz, final zortzirenak. Final-laurdenak maiatza bukaeran eta, finalak, Santixabeletan.

Herrian jubenil mailako pilotaririk ez dagoenez, txapelketa beste era batean antolatu da aurrean. Era honetan, bi taldetan banatu dira pilotariak: 22 urtez azpikoak, batetik; nagusiak, bestetik.

22 urte azpikoen artean, bost dira herritarrak, kanpoko beste bost lagunekin bikotea osatu dutenak:

Portu - Etxegarai (Bera)
Lizarrar - Orena (Añorga)
Granado - Iturralde (Lasarte)
Aranburu - Urkia (Lasarte)

Nagusien mailan, aldiz, 32 bikotek eman dute izena. Herrikoak, hauexek:

Altuna - Olaizola (Lizartza)
Santxo - Irureta (Ordizia)
Errasti - Bessonart Senpere)
Lasa - Arruti (Urretxu)
Mikelperizena - Landa (Bera)



Usurbil, Herri Arteko Pilota Txapelketan

Usurbilgo taldeak, eskuz, Astigarragaren aurka arituko beharko du. Eta palaz, Errenterriaren aurka.

Bartzelonara bidaiia

Apirilaren 5ean, DBH 4ko ikasleok Bartzelonara bidaiatxo bat egin genuen. Goizeko zazpiak aldera abiatu ginen Usurbildik Amposta aldera (Tarragona). Ordu biak inguru iritsi eta bertan bazkaldtu genuen. Gero, Ebro ibaiaren deltarra joan ginen "Pertxar" praktikatzerara. Txalupa berezi batzuetara igo eta "pertxa" moduko gakoa zuen makila batez bultzatuz, bertako ubideetatik ibili ginen, garai batean ehiztariak atzera eta aurrera eramateko egiten zuten modura.



KOADRILA OSOAREN ERRETRATUA.



TXIKI-PARKEAN ERE IBILI GINEN.



Zazpiak aldera hotelera iritsi ginen. Oooo!!! A zer hotela! Bertan nahi izan zutenek dutxatzeko aukera ere izan zuten, ondoren afaltzera joateko.

Bigarren egunean, Bartzelona bisitatu eta bertako paradisuak ikustera! Ordu beteko denbora librean izan ondoren (erosketa kontuatarako eta...) autobusa hartu eta gidaren laguntzaz Güell parkea ikusi genuen. Ondoren, zoo-a eta aquarium-a. Leher eginda geunde-

nez, hotelera bueltatu ginen deskantsatzera.

Azken eguna Port Aventura igaro genuen. Nahiz eta zerua garbi ez egon, ederki aprobeztatu genituen bertako atrakzioak.

Zortziak aldera hotelera bueltatu ginen afaltzeko irrikaz.

Hamaika eta erdietan autobusa hartu eta etxerantz abiatu ginen goizeko seietarako iristeko asmoz.

Oharrak !

Txerrimunik ordainetan !

ETXEBIZITZA

- Usurbil edo inguruetan pisua errentan hartuko genuke. Tf: 645722874.
- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahiko luke Usurbilen. Tf: 679 185 102.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Salgai Enduroko motorra Suzuki DR-400-Z. Oso egoera onean. 607 457 004 (Dani).
- Garaje-itxia alokatzen dugu. Interesatuak, 943361730 (20:00-22:00).
- Vespa Iris 200 motorra salgai. SS-AL matrikula. Salneurria 600 euro. 656721158.
- Garaje bat daukat alokairuan jartzeko Kale Nagusian (Bizkarreko etxeetan) 240eurotan. 100m2takoa da eta kotxea erraz sartzen da. 943458284.
- Ford Fiesta salgai. Diesel 1.8, SS-AV. Egoera onean. 637 135 088.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3 zbk. 607905859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da kale nagusian. Interesatuak deitu 943361235.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Lan egiteko gogoia daukat. Kanpotarra naiz eta edozein lan egingo nuke: portalak garbitu, plantxa egin, kanguro lanak astebukaeratan, pertsona helduekin, fregaderako lanak... 677552258 (Sharon)
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera lan egiteko. 667694469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Horrelako lanetan aritua. 626641155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbituetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskilerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. Interesatuak deitu 690 784 113 telefono zenbakira.
- Oporretako, ospakizunetako, edota edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Informazio gehiago nahi izan

ezkero deitu 943- 555835/ 617-242660.

Lan-eskaintzak

- Emakume heldu bat behar dugu etxeko-lanak egiteko. Eguerdiko lana izango litzateke. Euskalduna izatea nahiko genuke. Interesatuak mesedez deitu telefono honetara: 943 300 518 (M^a Angeles)
- Orioko ilepaindegi batean estezizista bat behar da. Interesatuak deitu 943832729.
- Astelehenetik ostiralera, eguerditan pertsona bat behar dugu Antxeta jatetxean lan egiteko. Interesatuak deitu 943370344 telefonora.
- Zarautzko taberna baterako sukaldaria eta zerbitzaria behar dugu. Udarako bakarrik. Interesatuak deitu honako telefono zenbakira: 661 97 26 70.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Baldintza onetan dagoen 49cc dituen moto Honda bat daukat salgai. Interesatuak 943 36 45 54.
- 3 urteko Citroen Jumper 0.2 HDI 9838BTH salgai egoera onean, 39.000 km. 678295620.
- DB1eko matematika eta gaztelarazko klase partikularrak emateko pertsona bat behar dut. Interesatuak utzi mezua 943365737 telefonon.
- Ume baten urrezko pultsera bat galdu dugu. Ianire izena eta data bat dauzka grabaturik. Aurkitu duenak deitu 667502218 telefonora.
- Oporretarako, astebukaerarako edo despedidetarako txaletak alokatzen ditugu Peñiskolan. Itsasora zein mendira begira dauden txaletak. Gune berdeak, pizina,... 964491022/ 677780680.
- Errepide ondoko autobus geltokian Karpeta txuri bat galdu dut. "Aulas Kutxa" hitzak ditu azalean. Aurkitu duenak deitu 943364733 zenbakira.
- Ekonomika sukalde bat saltzen da (labea ere badu). 6 urte ditu, ondo zaindua. Prezioa negoziatuko da. 617242660 / 943361751 (Nerea).
- Bideokamara bat saltzen dut, Canon XL1 semiprofesionala, batera eta tripodera barne. Gutxi erabilia berria dago. 943376902 - 665749615 gaez.
- Kamping-karroa salgai, aluminiozko panelarekin. Karabana bihurtzen da. 943 55 18 32.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615755762



**Zorionak laukotia
Atera denoi potia
Oraingo hontan badaukagu ta
Afaltzeko aitzakia**

"kuadrilla"

JAIOTZAK

- Aitor Desmond Smart Idehen, apirilaren 9an, Santuenea.
- Irati Redruello Gimeno, apirilaren 13an, kaxkoa.

Informazio iturria: Usurbilgo Bake Epaitegia

Oharrak - Txerrimunik ordainetan doaneko atalak dira
NOAUA! Kultur Elkarte - Borda Berri, 3
Eguzkitzaldea 20170 Usurbil
erredakzioa@noaua.com

LATXA
Kutxa denda

Janari prekozinatua
Kongelatuak
Bertako produktuak

Zubiamena 2, Usurbil Tel. 666 301 803

GLG
garraioak
ZABOR BILKET

TELF: 943 37 01 46

LAUKOTE
OKINDEGIA
KAFETEGIA

Huntapak kalas. 16 bahas
(Artxabal). 943 36 00 80

LIZARRALDE ilepaindegi mixtoa
Permanente inteligentea, rizoen kiribilketa kontrolatuarekin.

Solarium-a, estetika, depilazioa
manikura, manikura frantsesa,
pedikura, eta makiluja.

Zubiamena, 5b Tel: 943 36 1971

ANDONI PINTURAK

Faxada eta
barnelanetan Bepesializatua

C/Etxeberri, 8
(kalezar)
Usurbil

Tel.: 943 361 318
Móvil: 605 702 517

Eusko Tren-en tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.52/		10.21/	10.05	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22/		11.47/
11.51	12.05	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21/		20.48/	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07/		22.32/
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero
* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero

Eusko Tren-en autobus ordutegia

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05		07.30
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.15	07.35		08.00
08.40		09.05	09.25	07.45	08.05		08.30
09.00	09.20	09.30		07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.25	09.35	09.55	08.15	08.35		09.00
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05		09.30
10.00	10.25	10.35	10.55	08.45	09.05	09.15	09.40
10.40		11.05	11.25	09.30	09.35		10.00
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45	10.05		10.30
11.40		12.05	12.25	09.45**	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25**			10.30	10.35	11.00
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05		11.30
12.40		13.05	13.25	10.45	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05		12.30
13.00	13.25	13.35	13.55 #	11.45	12.05	12.15	12.40
13.40		14.05	14.25	12.45	13.05		13.30
14.00	14.20	14.30**		12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.25	14.35	14.55	13.30	13.35		13.55*
14.40		15.05	15.25	13.45	14.05		14.30
15.00	15.20	15.30		13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.25	15.35	15.55	14.30	14.35		15.00
15.40		16.05	16.25	14.45	15.05		15.30
16.00	16.25	16.35	16.55	14.45	15.05	15.15	15.40
16.40		17.05	17.25	15.30	15.35		15.55*
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05		16.30
17.40		18.05	18.25	15.45	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.30		16.30	16.35		17.00
18.00	18.25	18.35	18.55	16.45	17.05		17.30
18.40		19.05	19.25	16.45	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25**		17.45	18.05		18.30
19.00	19.25	19.35	19.55	17.45	18.05	18.15	18.40
19.40		20.05	20.25	18.45	19.05		19.30
20.00	20.20	20.30		18.45	19.05	19.15	19.40
20.00	20.25	20.35	20.55#	19.30	19.35		20.00
21.00	21.20	21.25	21.45	19.45	20.05		20.30
21.00	21.25	21.35	21.55	19.45	20.05	20.15	20.40
22.15	22.35	22.45	23.05	20.45	21.05		21.40
22.00	22.25	22.35	22.55	21.15	21.35		22.40
22.30	22.55	23.05	23.25	21.45	22.05	22.15	22.40
00.00		00.25	00.45	23.15	23.35		00.00
02.00		02.25	02.45	01.15	01.35		02.00
04.00		04.25	04.45	03.15	03.35		04.00
06.00		06.25	06.45	05.15	05.35		06.00

**Aiaraino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiarra
*Aiatic dator ▣ Asteburutan
▣ Solilik ▣ Larunbatetan
▣ larunbata gaeuz ▣ lanegunetan

Donostiara autobusez joateko, geltokia San Inazio errotondako markesina berrian (martxoaren 29tik aurrera).

Eguneko goardiako farmaziak

- Apirilak 28, osteguna**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte
- Apirilak 29, ostirala**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
- Apirilak 30, larunbata**
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
- Maiatzak 1, igandea**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
- Maiatzak 2, astelehena**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
- Maiatzak 3, asteartea**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte
- Maiatzak 4, asteazkena**
Gil, Nagusia 24 Lasarte
- Maiatzak 5, osteguna**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
- Maiatzak 6, ostirala**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte
- Maiatzak 7, larunbata**
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte
- Maiatzak 8, igandea**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte
- Maiatzak 9, astelehena**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
- Maiatzak 10, asteartea**
Gil, Nagusia 24 Lasarte
- Maiatzak 11, asteazkena**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte
- Maiatzak 12, osteguna**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
- Maiatzak 13, ostirala**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
- Maiatzak 14, larunbata**
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Gil, Nagusia 24 Lasarte
- Maiatzak 15, igandea**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

GAUEKO GOARDIAKO FARMAZIAK
Urte osoan, gaueko goardiako farmazia guztiak Hernanin egingo dira. Maria Jose Chucla, Kardaberaz Kalea 48, Hernani (943 55 17 93).

2005eko egutegi osoa noaua.com helbidean

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55* 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35*(T)/ 19:15(T)
Donostia-Zubieta (Gipuzkoa plazatik)
7:15* 9:00/ 12:45(T)/ 13:45*/18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)
Donostia-Zubieta (Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T)/ 13:30(T)/ 15:30(T)/ 21:35 (T)
Donostia-Zubieta (Gipuzkoa plazatik)
11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

* Eskola egunetan
T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Datorren NOAUA!

Maiatza							
Az.	Ar.	Az.	Os.	Ost.	La.	Ig.	
							1
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30	31						Hurrengo alea ●

Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak..... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarregi ikastola..... 36 12 16
- Udarregi (Agerialde) 36 38 95
- Oiarde kiroldegia..... 37 24 98
- Zumarte 37 15 94
- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia..... 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak 112
- Larrialdiak..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkarte..... 37 17 51
- Arrate Egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra..... 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) . 47 09 76

Lehiaketa !

SARIA:

Mokogorri puzzlea

Ipuin aktiboak
Oihaneko Liburua
Ahatetxo Itxusia
Alizia Herrialde Miresgarrian

Galdera erraz hau asmatzen dutenen artean sari zoragarri hau zozketatuko dugu.

Ba al dakizu maiatzaren 8an herriko mendizaleek zer ospatuko duten?

1) LANGILEON EGUNA
2) SAGARDO EGUNA
3) ANDATZA EGUNA

Erantzunak bidaltzeko azken eguna
MAIATZAK 6

203. lehiaketako erantzuna:
Aurki, liburuaren eguna ospatuko da, ba al dakizu zein egunetan izango den? **APIRILAREN 23an**

Irabazlea **EIDER TAPIA** izan da. Jaso ezazu saria Noauako egoitzan. **ZORIONAK!**




Agenda !

Apirilak 30, larunbata

- 11:00etatik 13:00era, Euskal Herriko Naziotasun Aitormena tramitatzeko aukera. EHNA eskuratu egin nahi duenak, honakoa aurkeztu beharko du: 3 argazki eta errolda agiria (adin txikikoei famili-liburuaren fotokopia). Prezioa: 15 euro.

Maiatzak 1, igandea

- Andatza Eguna. Antolatzailea: Andatza KKE (egitaraua 17. orrian).

Maiatzak 8, igandea

- Herri Urrats 2005.

Maiatzak 14, larunbata

- Plis, Plas 2005. 17:30ean, Santueneko eskubaloi gunean, Herri Kirolak.

Literaturaren txokoa !



Saiakera interesgarria

*Hitzek inon
Hikasi gabeko
jakite bat
dakarte berekin, ezjakinak
edo jakinezak gozatu-
tako jakite bat, eta
hargatik dira pentsamen-
duaren ama eta ume, arrazoiaren inude
eta titi-ume".* Hala utzi du idatzirik saio honetan Iñaki Seguroiak, eta, aitoren horri zintzo jarraiturik, gure artean ez ohikoak diren pentsamendu eta arrazoiak sortu ditu. Metodologia klasikoak erabili du horretarako: ezaren gudaz baietza sortuz, ukazioa legez hartuz, zeruak eta lurak astindu.

Prosa jostagarri bezain zehatz batez daude elkarren ondora bilduta auto-



rea kezkatzen duten hainbat gai: egia, tristura, maitasuna, gaztetasuna, zoriona eta heriotza, hemengo betiko euskal kontu gizenak sailhestu gabe.

Hiru argazkiri begira harrapatzen dugu autorea azken orrialdeetan. Batean bi urte ditu, bestean zazpi-zortzi, hurrengoan, berriz, hamasei bat. Horiek dira aitortzen dituen arbaso bakarrak. Eta haiei begira sortzen zaio galdera: "zeren kontra zaudete, nengoen edo geunden?".

FITXA TEKNIKOAK

Titulua: "Gaur ere ez du hiltzeko eguraldirik egingo".

Idazlea: Iñaki Seguroia.

Argitaletxea: Alberdania 2005.

Orri-kopurua: 296 orrialde.

Prezioa: 19,50 euro.

Kontuak berdintzeko garaia da

Ekainaren 27ra arte dugu Errenta Aitorpena egiteko aukera. Aurten, Gipuzkoarron ehuneko 80k dirua jasoko du Errenta Aitorpena egin ondoren. Usurbildarrok Donostiara, Amarara joan beharko dugu Errenta Aitorpena egitera. Hori bai, badirudi gazteleraz euskaraz baino seguruago sentitzen garela Errenta Aitorpena egiterakoan, herritarren %5ak bakarrik egiten baitu euskaraz.

Gipuzkoako Foru Aldundiak erabakitzen du nork ordaindu behar dituen zergak osorik, eta nork sar ditzakeen kenkariak. Jaiotze-tasa beheruntz egiten ari dela ikusita, seme-alabak edukitzeagatik egiten diren kenkariak handitu egin dira. Aurtengo nobedadeen artean, dohaintza edo donazioak egiteagatik aplikatzen den kenkaria da. Aurreko urtean %20koa izan zen eta aurten %30ekoa izango da, hala-koak areagotu eta bultzatu behar direla ulertu baitu Foru Aldundiak.



HERRITARREN %5AK BAKARRIK EGITEN DU ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ.

Errenta Aitorpenarekin lagundu

Errenta Aitorpeneko kuotaren % 0,532 egokien deritzogun erakundeari eman diezaiogeku, bai eliza katolikoari, bestelako helburuak dituzten elkarteei, edo biei, zergadun bakoitzak aukera dezake nori eman ezarritako kopuru hori. Iñaki Rica Ogasun Zuzendariaren arabera, "normalean jendeak kontzienteki erabakitzen du diru kopuru hori nori eman nahi dion".

Kontuan hartu beharrekoak

- AITORPENA DERRIGOR EGIN BEHAR DUTENAK

18.000 eurotik gora kobratu, edo kontratu bat baino gehiago duten pertsonak derrigor egin beharko dute Errenta Aitorpena. Kontratu bakarra izan eta langabezia kobratu dutenek ere derrigor egin beharko dute, baita etxebizitzaren bat saldu edo erosi dutenek ere. Autonomoek ere derrigor egin behar izaten dute Errenta Aitorpena, urtero.

- DERRIGOR EZ, BAINA KOMENI

Gauza bat da egin beharrik ez izatea eta bestea ez egitea. Zenbait kasutan, egiteko beharrik izan ez arren egitea komeni denez, zer egin ondo pentsatu behar da. Aukera badago Errenta Aitorpena egitera joan, kontuak egin eta ordaintzera ateratzen bazaigu Errenta Aitorpena ez entregatzeko. Aldiz kobratu beharko bagenu, Errenta Aitorpena entregatzea interesatuko litzaiuke.

- 2004AN ETXEA EROSI DUTENENTZAT

Etxearen eskriturak, eta eskatutako maileguaren paperak aurkeztu beharko dira kasu honetan. Kredituak iraun bitartean jarraituko du kenkariak. Kredituaren baitan ordaintzen diren interesen %20, eta kredituaren amortizazioaren %15 izango dira kenkari. Etxebizitza Kontuarekin ere gauza bera gertatzen da, kontu horretan sartzen duzun diruaren %15 kenkari izango da.

- INBERTSIOAK ETA FINANTZAK

Inbertsio bereziak eta finantza planak dituztenentzat baldintzak bereziak dira eta ondo begiratu beharra dago, aholkularitza konkretua behar da. Aholkularitza zerbitzuetara jo eta bertan bakoitzari gehien interesatzen zaion Errenta Aitorpen modua zein den esango zaie.

Errenta aitorpena euskaraz, zergatik ez?

%5ak bakarrik egiten du Errenta Aitorpena euskaraz, badirudi gure diruaz aritzeko nahiago izaten dugula euskaldunok gazteleraz aritu, halaxe adierazi digu Juan Jose Etxeberria Errenta Zerbitzuko Buruak ere: "zenbakiak aipatzean, jendea urduri jarri eta gaztelerara jotzen du".

"Badaezpada gazteleraz egingo dut"

Euskaraz jakin eta aitorpena gazteleraz egiten dutenak asko izan ohi dira. Etxeberriaren esanetan, "jendeak errenta euskaraz eskatzen du hasiera batean; eta jaso ondoren, gazteleraz bidaltzeko eskatzen digu. Gazteleraz ulertzea zaila izaten da, baina euskaraz are gehiago. Oso teknikoa da, eta badago jarrera orokortu bat: badaezpada gazteleraz egingo dut".

Euskaraz egiteko aukera bada, ordea

Aurten, Errenta Aitorpenerako informazio orrietan euskaraz egin dezaten animatzeko logoa ere jarri du Foru Aldundiak. Jendea euskaraz egitera animatu nahi da, baina badakite kosta egiten dela: "15 urte baino gehiago daramagu aukera hori eskainiz. Kanpainarenean ere martxan dago jendeak jakin dezan aukera hori badagoela. Hernaniko bulegoan esaterako, euskaraz aritzeko arazorik ez da eta zalantza guztiak euskaraz galdetzen dira, baina aitorpena erdaraz egiten da".

Egizu euskaraz errenta aitorpena



- >>> **Errenta aitorpena:** apirilak 25 - ekainak 27
- >>> **Mekanizatua:** Donostia, Antso Jakituna hiribidea, 9
- >>> **Telematikoa:** www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta
- >>> **Info:** 902 100 040




Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria,
Urnieta eta Usurbilgo
Udalotako Euskara Batzordeak



EGIN TXOTX! SAGARDOTEGI GARAIAN

Zain duzu aurtengo sagardoa, Txotx!



Saizar
Sagardotegia

Kale Zahar Auzoa, 39
48901
E S U R B I L
G I P U Z K O A
Tel. 943 362 228

WWW.sidrasssaizar.com

Txotxetik irten zera kristal fiñ garbira, saltatu dezu illun betikan argira; atoz ederra, atoz, gauzkatzu begira, eragiteko baso zaudenari jira.

Ramon Artola. "Sagardoaren grazia eta beste bertso asko"



Urtarrilaren 14 tik irekita!

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31
Mobila: 670 02 77 31



SAGARDOTEGIA



**ASTIAZARAN
SAGARDOTEGIA
IRUIN**

Betidanik hemen, denon etxetik gertu.

Urtarrilaren 7 an irekiko degu.

TEL: 943 36 17 29